

Eraikuntza postmodernoa

Arkitektura postmodernoa, Nazioarteko Estiloaren kontrako joeratzat har dezakegu. Hala ere, arkitektura modernoaren eta postmodernoaren arteko muga marraztea zaila denez, Nazioarteko Estiloarekiko haustura bultzatu zuten hurrengo bi estiloetan jar daiteke arreta.



Kepa Iturralde °

Gako-hitzak:
konposizioa,
tradizioa,
eraikuntza lekukotua

Batetik Italiako tendenza estiloan, **tradizioaren birbegiratzeko** bat ikus dezakegu. Izan ere, hiri historikoaren inguruan eginiko lanek testuinguru horretara egokitzeko nahia bultzatu zuten. Bestetik, AEBn, **Philip Johnson-en inguruko Venturi eta 5 Architects-en eragina** nabarmendu behar litzateke. Kontuan hartu behar da, hauek aukeratzekoan, beste hainbat mugimendu alboratu uzten direla, Europako iparraldeko herrialdeetako arkitektura lekukotua edota high-tech arkitektura, besteak beste.

Mugimendu Modernoak bultzaturiko arrazionalismo, funtzionalismo, ornamenturik ez, eta unibertsaltasunaren aurrean, Postmodernitateak, begirada historiazalea, lekukotasuna eta ornamentua bezalako kontzeptuak bultzatu zituela esan dezakegu.

Ondorengo puntuetan, Postmodernitateak eraikinaren elementu esanguratsuenetan izan zituen eraginak zerrendatu dira. Jakina da, azaltzen diren ezaugarriak orokorrak direla eta ezaugarri hauek betetzen ez dituzten eraikin postmodernoak ere badirela.

Eraikinaren oina

Estilo modernoaren ezaugarrietako bat, eraikina, beharrezkoak baino ez diren zutabeen gainean azaltzea zen.

Postmodernitatean, eraikinaren **egitura klasikoak** indarra hartzen du. Eraikinaren **konposizioak hiru elementu ditu: oina, gorputz nagusia eta estalkia**. Ondorioz, eraikin postmodernoak, lurarekiko lotura bermatzen du, lurreko elementu jarraitu baten bitartez. Bistan da zokalo moduko hau egiteak hormetako lehen lerro iragazgaitza gogorarazten digula. Zokalo hau pisu oso batekoa izan daiteke, eraikinari hasiera ematen dio eta gainerako fatxadarekiko material ezberdin batez egina izan daiteke. Esan beharra dago, eraikinaren oinak portiko edo arkupe itxura ere har dezakeela.

Fatxada eta leihoak

Nazioarteko Estiloak, fatxada konposizio klasikoari uko eginez, leiho horizontal eta handiak bultzatu zituen. Normalean, arotziak piezkatze ahalik eta handienarekin eta kolore ilunekin egiten ziren. Bestalde, erabateko gardentasuna bilatzen duen kurtina-horma ere nazioarteko estiloaren produktutzat har dezakegu.

Postmodernozaleek, ostera, **fatxada konposizio ordenatua bilatuko** dute normalean. Leihoak horman duen zulo izaera berretsiko du. Zulo hau altuagoa izan ohi zen zabalean baino, eta zulo honen tamaina, hormetan eginiko zuloen proportzioetakoak zen.

Hormako zulo horrek bere eraikuntzan erabilitako elementuak agerian jarri ahal zituen, hala nola dintelak edota markoak. Baina badira leiho zuloa abstrakzio huts bezala agertzeko joerak ere, non leihoa itzalek soilik bereizten duten.

Estalkia

Le Corbusier-ek bultzaturiko estalki lau eta erabilgarriaren orde, eraikin postmodernoek beren izaera estalkiaren maldekin berretsi zuten. **Estalki isuriduna, teila, zink nahiz kobrezkoa izan zitezkeen eta mantsarda bezalako elementuak** ager zitezkeen. Bestalde, frontoiaren erabilera, bai fatxada eta bai estalkia ordenatzeko erabilia izan zen, eta askotan De Chirico-ren koadrotako abstrakzio puntua bilatzen zen.

Herrialde anglosaxoietan, forma eta itxura antzinakoak teknika berriekin eraikitzeke nahia zegoen askotan, zertxa moduko egitura metaliko isuridunak erabiliz. Joseph Paxton-en arkitektura gogora ekar diezaguke estalkiekin lan egiteko modu honek.


Materialak

Itxura industrializatua duten elementu aurrefabrikatuak erabili orde, **itxura tradizionalagoa duten elementuak** erabiltzen dira oro har. Tartean dira adreilua, harri aplakatuak, eta hormigoizko blokea, besteak beste. Material hauek erabiltzeak fatxada zein oinplanoa modu zehatz batean modulatu eta ordenatzera derrigortzen zuen.

Egitura

Nazioarteko Estiloaren azken urteetako joera miesdarrak baztertuz, egitura ezkutatu egin ohi da, fatxada konposatzeko traba bat dela. Askotan, **fatxada hori eustorma dela badirudi ere, murrutxo hori itxurazkoa baino ez dela esan daiteke**.

Badira, ordea, zutabeak anekdota moduan azaleratzeko joerak ere. Kasu hauetan, zutabeak kolore bizikoak izan ohi ziren.



Ondorioak

Korrante ideologiko edo mugimendu bat izan zen arkitektura honek eraikuntza mota gertuagokoa, tradizionalagoa eta giza baliabidez eginikoa bultzatu zuen.

Zenbaterainoko aldaketa erakarri zuen eraikuntza arruntean? Eraikuntza kaletarra, oro har, ez doa ildo ideologiko hauen atzetik. Merkatuaren nahi bakoitzera egokitzen da, eta bere helburu propioak ditu.

Postmodernitateak eraginda, hobetu edo okertu egin zen eraikitze modua? Postmodernitatea nazioarteko estiloaren akatsak zuzentzen saiatu zela esan daiteke. Baina era berean, beste bizio ugari sortu zituela esan daiteke.

Bibliografia

- ROSE, M. (1991): *The post-modern and the post industrial: a critical analysis*, Cambridge University Press, Cambridge [ISBN 0-521-40131-3].
- FOSTER, H. ed. (1983): *The anti-aesthetic: Essays on postmodern culture*, Bay Press, Port Townsend [ISBN 094192002X].
- FORESTER, J. ed. (1996): *Critical theory and public life*, MIT Press, Londres [ISBN 978-0-262-56042-9].
- JENCKS, C. (1986): *El lenguaje de la arquitectura posmoderna*, Gustavo Gili, Bartzelona [ISBN 84-252-1195-6].
- JUARISTI, J. (2001): *Espacio urbano y territorio en la Geografía de la post-modernidad*, EHU, Donostia.
- JACOBS, J. (1961): *The Death and Life of Great American Cities*, Random House, New York [ISBN 0-679-60047-7].



° Kepa Iturralde arkitektoa da.